


- **Kultura:** Eskulan tailerrean izena emateko epea zabalik
- **Erreportaia:** Begoña Lete, Peio Etxeberria preso politikoaren ama

soraluzeko
hamabostekaria **197.** alea
2009ko apirilaren 24an

pil-pilean



Irukurutzeta eguna
Mendiko erromeria zaharra

Korrika Soraluzen



Musika Eskola korrika

Euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira!
Al pueblo de los
que queremos
vivir en euskera!
korrika



Amnistiaren aldeko mugimendua korrika



Udaletxeko zinegotziak korrika



Pil-pilean eta Kukumixo korrika



EA korrika



Ezker abertzalea korrika



Gaztetxea korrika



Pelota taldea korrika



Keixeta Guraso Elkarteak korrika



Futbol taldea korrika



Dantza taldea korrika



Atxolin Guraso Elkarteak korrika



LAB sindikatua korrika



Gazte abertzaleak korrika



AEK korrika



Euskal Herrian Euskaraz korrika



BITTOR TREBIÑO



ANDER EPELDE

EUSKERA

Kaixo Ander; Duela egun batzuk Euskal Herrian zehar hizkuntzarekin lotuta egon den ekimen kultural baten testigu izan gara. Hizkuntza bizirik mantentzeko aldarria eginez, jai giroan, korrikan aritu gara txoko eta baztar ugaritik euskeraren alde.

Beharrezkoak ikusten ditut ekimen horiek, Ander; baina egun horietan ateratako argazkia ez ote den trukatura irtengo beldurnaiz. Eta ez pentsa balorea kentzera natorrenik Korrikari; ez, kontua bestelakoa da.

Hizkuntzetan adituak diren ikerlariak diotenez, 6.000 hizkuntza inguru daude gaur egun; gehienak oso hiztun gutxikoak direla diote eta galtzeko arriskuan daude; batez ere, Europatik kanpoko lurraldeetan.

Horregaitik, euskera bezelako hizkuntz minorizatuak etorkizuna ziurtatuta ez dagoela esan liteke; are gehiago, galtzeko zorian daudenen zerrendan jartzeko moduan dagoela euskera esan genezake. Hizkuntza batzuk garai oparoak bizi izan arren, luzea da galdukoen zerrenda; tartesioa, galoa edo Iberiar penintsulan erabiltzen ziren zeltiar jatorrizkoak, esaterako.

Bi hizkuntza indartsuen aurrean bizi behar du euskerak egun, hauek duten indarrari aurre eginez. Adibide bat besterik ez bada ere, erromatarren garaitik hizkuntza dominatzaileek hizkuntza minoritarioak irentsi egin dituzte. Lehenago mendeak behar baziren hizkuntzak desagertzeko, gaur egun desagertze prozesuak askoz ere azkarrago ematen ari dira.

Euskaldunok gure txikitasunean, hizkuntza unibertso anitzetan ikusi nahi baldin badugu, eguneroko bizitzan euskera beharrezkoa bilakatu dadin, badaukagu non jarri gogoak. ●

6.000 hizkuntza inguru daude gaur egun

Bittor Trebiño

erabiltzen ez den hizkuntza, hila da!

Ander Epelde

Kaixo, Bittor! Euskararen gainean zenbat gauza esan eta idatzi dira azken bolada honetan, asko zentzudunak, baina, baita, “uniformitzaileen” ahotik astakeria galantak entzun ditugu.

Ez dago ukatzerik gaur egun euskararen aurkakoak azpilan handia egiten ari direla, Euskal Herriko (*eta baita Euska Herria diot*) berezitasun hori desagertarazteko, denok, dakigu eta, hain harro eta indartsu dabiltzan “*elebidun*” horiek duten asmo bakarra; euskara, museorako bitxia bihurtzea, beren proiektuan oztopoa besterik ez da eta.

Hemen euskaldunok dugun lan garrantzitsuena da, erdal herri bihurtzearen aurka gogor ekitea, hots, euskal herria bihurtzea, non Euskara izando da lehentasunezko hizkuntza, bertakoa, beste erdara guztiak errespetatuz.

Horren alde ez jotzea geure buruaz beste egitea litzateke.

Bittor, sarreratxo honekin honetzeko horretarako jakingo dozu zer egin behar dan, ezta!

Euskararentzat dena da, berba ona, goratzea edo aupatzea, eta zorioez geroz eta gehiagok dakite baina hemen txete huts egiten dugu “*erabileran*” eta horixe da kakoa. Azken batean, erabiltzen ez den hizkuntza, hila da, beraz, arabilerara bultzatu eta indartu beharra daukagu, eguneratu egin behar da, horrela gizarte euskalduna aberastuz, helburutzat hori duten bide guztiak egokiak dira.

Horra bada, Euskal Herri euskalduna bihurtzeko begi aurrean daukagun lana itzela da, baina, ezinbestekoa; Euskal Herri bezala irauteko, beste guztia adarretatik ibiltzea besterik ez da, adabakiak jartzea, ezer ez egiteko. Aurrera, bada! Euskararen erabileran! ●

Goguan hartzeko

“Zer ikusi, hura ikasi”

Euskal atsotitzak



GUTUNAK

Ongi Etorri Euskaraz Bizi Nahi Dugunon Herrira, Eta Eskerrik Asko!!

Eskerrik asko Korrikan parte hartu duzuen guztiei, eskerrik asko euskalgintzan dabilatzatenei, euskaltzale guztiei, euskaldunei eta euskaldundu nahi duten guztiei.

Guztioi esker pasa baita berriz ere herritik Korrika, pausoa arin eta gelditu gabe aurrera. Hala behar luke euskarak ere, denon artean... Lekukoa eror ez dadin esku guztiak baitira beharrezko. Le-

kuko horrek barruan gorderik zeraman mezuak zioen bezala, altxor bat baitaukagu, denona, denok elkarrekin partekatze modukoa eta partekatuz bakarrik hartzen duena bere balioa.

Eskerrik asko beraz, eta jarrai dezagun gure altxorra aberasten!!

SORALUZeko AEK

PNVk torturatzen du

Astearte gauean Ertzainek=Zipayoeek azken Aegunetan Polizia Nazionalak eta Polizia Frantsesak atxilotu dituen Euskal Herritarrak pairatu ditzaketan torturak salatzen zituen panela eta panpina lapurtu zituen.

Zergaitik lapurtu dituzte panela eta panpina?

Zer da delitua, torturatzea edo tortura salatzea?

Zer dela eta inkomunikatzen ditu PNVk Euskal Herritarrak? Torturatzeke ez bada?

Ze interesegatik eskutatzen dituzte PNVk eta bere zipayoeek beste polizien torturak?

SORALUZeko ASKATASUNA

Aldaketa politiko eta ekonomikoa beharrezkoa dugu. Euskal herritarrok hitza eta erabakia.

Aurtengo Apirilaren 28 (*Lan Osasunaren Nazioarteko eguna*), eta Maiatzaren lehena (*Lan-gileon Nazioarteko eguna*) oso momentu gordinean datozkigu.

Ez gaude ez, dezelerazio garaian, ez atzeraldian, ez eta ekonomi krisialdi baten ere, egoera askoz ere sakonagoan gaude, ekonomia eredu kapitalistaren krisi baten aurrean gaude. Eredu kapitalista honek, Euskal Herria hiru eremuetan zapaltzen du: nazionalki, Euskal Herria bi lurraldetan banatuz eta erabakitzeko eskubiderik gabe utziz, sozialki, langileria zapalduz, eta azkenik patriarkatua bultzatzen du, emakumea zapalduz.

Ondorioak larriak dira. Bizi baldintzak are eta prekarioagoak bihurtzen zaizkigu herritar askori: familiak guztiz zorpetzen dituzten hipotekak, oinarriko elikagaien garestitzea, langabezia, gizarte zerbitzuen murrizketa eta pribatizazioa, emakumeen eskubideen urraketa muturreraino eraman...

Eta nork eraman gaitu egoera honetara? Bankero eta patronalaren diru gose mugagabeak, buruzagi politikoen onarpenarekin noski. Bien bitartean Zapatero, Ibarretxe eta Sanz gobernariak sistema hau babestu eta berrindartzen dute: diru publikoa erabili bankuei edo enpresariei laguntzeko, enpre-

seizergak jaitsi, 65 orduko lan asteak proposatu, pentsioen erreformak, soldaten jaitsierak, enplegu erregularizazioak, kaleratzeak... Baditugu Soraluzen guzti honen adibide garbiak.

Guzti hau ikusita, ekonomia eredu aldatu beharra dagoela inoiz baino argiago dago. Horretarako, euskal herritarrok hitza eta erabakia izan behar dugu, demokrazia batera heltzeko eta egoera honen alternatiba izango den gure proiektu politikoari, INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOARI, ateak zabaltzeko. Honetarako ezinbestekoa da Euskal Estatuaren alde gaurdanik lanean hastea, non, Euskal Herriak herri gisa bizirik iraungo duen eta herri honetako langileriak bere eskubide guztiak bermatuak izango dituen. Gure ustez, bestelako planteamendu batek, menpekotasunera kondenatuko gaitu orain arte bezela, behar dugun ekonomia sistema ezartzerakoan erabakitzeko eskubiderik gabe uzten digulako.

Aldaketa sozial eta politiko honen alde, Soraluzeke ezker abertzalea Apirilak 28an, Maiatzaren lehenean eta nola ez, Maiatzaren 21ko greba orokorrean, kalean izango da.

SORALUZeko BATASUNA

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Leire Iturbe **Erredakzio batzordea:** Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Azalako argazkia: Mikel Valero

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik



Markel Arizaga

ARTISTAK

Hasieran eurak bakarrik zebeguaz. Kultura "sortzen" zebe "artisten" bizitza oso erreza zan: kultura enlatatua sortu, kultura saltzaileri pasa eta poltsikuak diruz nola betetzen ziran ikusi. Egoeria guztiz paregabiazan, orduan existitzen zan kulturaren urrittasun artifizialak eureri bakarrik on egitten zotselako. Eurek sortzen zebe produktua, eurek soilik zeken hau saltzeko gaittasuna eta eurek jartzen zebe salneurria.

Orduan apokalipsixa iritsi zan: Internet. Urrittasun artifiziala desagertu egin zan, edozein abesti, liburu edo filme edonork lortu (edo sortu) ahal zebalako orde-nagailu baten aurrian ipinitta. Ordutik aurrera "artistak" bildur dira, ointxe ez diralako kultura enlatatua salmentan parte hartzen dutenak, konturatu dira ez dala kultura eurek defendatzen zutena, baizik eta kulturaren negozioa. Eta negozio hau babesteko edozein pauso emateko gai dirala erakutsi dabe. Danon eskubidiak murrizteko gai dira euren pastelan zatixa mantentzeko, terrorismotik babesteko kalia kamaraz betetzen ditzuzten moduan, pertsona guztixen intimitatia kontrolatu nahi dabe kultura elkartrukatzan ez dala egiaztatzeko.

((ENTZUTEKUAK))

Irukurutzeta Eguneko erromeria maiatzaren 3an egingo da

Atsedean Txaboletako lagunak eta Osintxuko Txurumilo Elkarte kulturala dira gaur egun jai hau antolatuz arduratzen diranak.

Noiz ospatzen da Irukurutzeta Eguna?

Santa Kruz egunaren ostian ospatzen da, hurrengo domekan. Aurten, maiatzaren 3an egingo dogu jaixa. Askok uste dabe baina, beti maiatzeko lehenengo domekan egiten dala baina ez da beti horrela izaten.

Noiztik antolatzen doze?

Jai hau aintzinatik ospatzen da. Herriko nagusixak dinue gaztiak ziranian be juaten ziralara erromerixara. Izango dira 150 bat urte Irukurutzetan erromerixak egiten dirala. Hasiera baten, Irukurutzetan biltzen ziran dantzarako baina gero galdu egin zan ohiturria. Urte batzuk beranduago, Atsedean Txaboleta egin zan eta bertan hasi ginan txorixua eta saldia banatzen, meziakin batera. Oin dala 12 urte Bergarako Kapirixo taldea, Osintxuko Txurumilo eta Soralezeko lagun talde bat bildu ginan eta ingurua garbitu ostian, Irukurutzetan ospatzen hasi ginan. Txorixua, saldia eta mezia egiten genduan hasieran, baina gero mezia galdu egin zan, apaiz falta zala eta.

Zer egiten da Irukurutzeta Egunean?

Ohitturaz, egun honetan, Bergara, Soraluze, Osintxu, Elgoibar eta Azkoittiko jentia batzen zan dantzara eta esaten danez,



Atsedean Txaboleta

euren artian burrukan amaitzen zebe beti. Gauregun, Osintxuko eta Soralezeko jendia batzen gara bertan. Jaixa berreskuratu eta lehenengo bi urtietan, Lezaso baserriko gizona zaldi gainan agertzen zan kapa batekin eta kurutzari hiru buelta emoten zotsazen. Uste da, aintzina, garixa jasotzeko sasoian espiritu txarrak uxatzeko egiten zala erritual hau. Gero hau be galdu egin zan eta gaur egun, 60 litro salda eta 200 txorixoa pintxo egiten dittugu jendiari banatzeko eta gero erromerixia egiten da Irukurutzetan bertan. Batzuk, eguraldi ona egiten badau, etxetik jana ekartzen dabe, bertan bazkaltzeko.

Eta eguraldi txarra egiten badau zer?

Ez da ezer pasatzen. Eguraldi txarra tokatu izan jaku eta horrela bada, Atsedean Txaboletan egingo dogu jaixa. ●

*"Irukuru
tzeta Eguna
Santa Kruz
egunaren ostian
ospatzen da,
hurrengo
domekan"*

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49

CERTICAR
CALLE DE VACIO CERTICAR

H.NOS. BENITO ANAIK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Kolektorearen lanak uztaitan amaituko dira



Lanak eragindako arrikuak eragozteko aldamiok.

Lanen ardura duen Obegisa Eraikuntza enpresako teknikariak arduradunak azaldu digenez, Sorluzeko ur zikinak Maltzagara bideratzeko lanak 3 hilabete barru amaituko dira. Ondoren Elgoibarrera bideratuko dituzte Eibarkoekin batera. Hala ere, oraindik Olako Zubiko urak jasotzen dihardute, Zaharren Egoitza inguruan, Paskual

Txurruka lantegiaren aurrean eta Etxaburueta kaleko asfaltatze lanak egiteko daude.

Eusko Jaurlaritzak finantzatuta

Eusko Jaurlaritzako Ur Agentziak bideratu du proiektua. Guztira 3.000.000 euro inguruko inbertsioa egingo omen da Debabarreneko ur zikinak garbitzeko.



Adin txikikoendako egoitza- ren zurrumurrua

Aste honetan egunkari batek Sorluzeko adin txikikoendako egoitza bat egiteko asmoa izan zitekeela zabaldu zuen. Zurrumurru hori gezurtatu nahian, alkateak adierazi digu ez duela gaiaren inguruko inongo informazio ofizialik jaso eta sorluzetarrak lasai egon litezkeela, "Sorluzen ez delako adin txikikoentzat zentrurik egingo". Egunkari horrek berak jakinarazi berri du aldundiak egin asmo dituen bi egoitzak Eibarren egingo direla.

Laneko Osasunaren Eguneko ekimenak

Hilaren 28an Lan osasunaren nazioarteko eguna ospatuko da. Sorluzeko Ezker Abertzaleak deituta kontzentrazioa egingo da arratsaldeko 19:30etan Plaza Barrixan. Hilaren 29an berriz, EHKren eskutik hitzaldia antolatu dute "Arzoa ez da krisia baizik eta Kapitalismoa" izenburupean. Hizlariak, Jon Kerejeta eta Aitor Saiz izango dira eta hitzaldia udaletxeko saio aretoan egingo da, arratsaldeko 19:00etan. Maiatzak lehen berriz, Langileen Eguna dela eta LABek Donostian antolatu duen manifestaziora joateko autobusa antolatu dutela ere jakinarazi dute.

Omenaldi beroa euskara ikasi dutenei

Aurtengo Korrikak euskararen mundura bidaiatzen ari diren guztiak omendu nahi izan ditu. Horregatik, euskaraz ikasi duten sorluzetar guztiak omendu zituzten Korrikaren aurretik egindako ekitaldian.



Baterajotze Nazionala antolatu du IAK

Hezkuntza sistema arrotza salatu eta Euskal Eskola Nazionala aldarrikatzeko, apirilaren 30ean egingo den Baterajotze Nazionalan parte hartzeko deialdia luzatu du Ikasle Abertzaleak. «Hezkuntza sistema Arrotzen Gaietik, Ikasleria Eraikitzen» leloarekin Sorluzeko ikasleak Elgoibarren 12:30etan egingo den eskualdeko manifestazioan parte hartzerantz gonbidatu nahi ditu.



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORLUZE

Udalaren proposamenaren inguruko iritziak

Udalak, astegunean ere herriaren erdialdea itxi eta goiko saihesbidean 172 aparkaleku egiteko proposamenaren inguruko iritziak emateko eskatu die herritarrei. Horretarako, kontzejupean dagoen postontzia erabili, alkate@soraluze.net helbidera idatzi edo harreta bulegora jo daiteke.

Isunak piboteen ondoan aparkatzeagatik

Udalak gogorarazi du jai egunetan Zubi Nagusiko eta Etxaburuetako piboteen ondoan aparkatzea debekatuta dagoela. Zaborra biltzen duen kamioiari traba ez egiteko eta larrialdi kasuetan bidea libre uzteko hartu omen zuten Udalak neurri hau. Hemendik aurrera, isunak jartzten hasiko direla jakinarazi du.



Europako hautesle zerrenda ikusgai

Europako parlamentuaren hauteskondeetarako Udal hautesle zerrenda apirilaren 27ra arte izango da ikusgai.

Kiroldegiko lanen esleipenak eta Laneko Osasunaren aldeko mozioa onartu dira



Joan zen martitzenean egin-dakoez-ohikoudalbatzarrean laneko osasunaren aldeko mozioa onartu zuen udalak. Gobernu Taldearen aldeko 5 botu, PP eta PSE-EE alderdien abstentzioa eta EAJren kontrako botuekin (*EAJk beste mozio bat aurkeztu zuen*). Mozioan jasotako datuen arabera, urtean 135.000 istripu inguru gertatzen dira Euskal Herrian eta 100 heriotza baino gehiago. Aurten, dagoeneko, 21 langile hil dira. Hauek dira mozioak jasotzen dituen adierazpen nagusiak:

1- Lan arriskuei eta kalteei aurre egiteko eredu publiko, uni-

bertsal, kalitateko eta parte-hartzailea aldarrikatzea.

2- Lan arriskuen prebentzioko alorra ez betetzeagaitik zigor irmoa jaso duten enpresekin obra edo zerbitzurik ez kontratatzea.

3- Herrian lan istripua gertatzen bada, udalak gertatutakoa argitzeko behar diren bitartekoak jarriko ditu.

Kiroldegiaren eraberritzea

Mozioarekin batera, kiroldegiko aldagelak eta erabilera anitzeko gela eraberrituko dituen enpresa ere aukeratu zuen udalbatzarrak. Amaral enpresa izan da aukeratua eta Gaitu enpresak egingo du udaletxeko igogailua.

Hilaren 21eko Udal Batzarra.

ARRANO
tabernia
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Merkatu Plaza
20590 Soraluze t. 943 75 24 40

egunerako arraina eta konjelatuak

Juan Mari arraindegia

MAPFRE
SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-8 Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jiibarza@inlonegocio.com

Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



“Peiok bizitzako urterik ederrenak kartzelan eman ditte, preso!”

“Beste 10 urtian gartzelan eukitzia nahi dabe!”

Begoña Lete Peio Etxeberriaren ama

Jaioterrria:
Azpeitia
Bizilekua:
Soraluze
eta Eibar
Adina:
79 urte

1989 an Peio atxilotu zuten egunean 360 graduko aldaketa eman zuen Begoñaren bizitzak. Semea gartzelan izateak dakarren berezko sufrimenduaz gain, sakabanaketa politikak eta urruntzeak eragindako zailtasun erantsiak sufritu ditu ordutik. Senarra orain dela 3 urte eta erdi joan zitzaion eta orain Eibarren bizi da semearekin. Azken 3 urteotan ez du Peio ikusi.

Zela gogoratzen dozu Peio atxilotu zeben eguna?

Guardia zibilak etorri ziran eta danak ohian genden. Ni kamisoian neguan eta Peio be ohian. 4 guardia zibilen artian hartu zeben eta berak lehenengo pisa parrastadia egin zeban, gero pare bat baso ur edan zittuan eta gero nere gizonari aguresan zotsan “*agur aita*” eta neri agurrik bes!

Gero berriz bueltau ziran guardia zibilak eta nik “*que ha hecho mi hijo?*” galdetu notsen. Ama beti izaten da azkena holako gauzekin enteratzen. Eurak, “*tiene matriculas falsas*” esan zosten, besterik ez! Gero 5 egunetan inkomunikatuta egon zan eta toruratu egin zeben. Ordutik gaur arte!

“Umetxua besuetan hartzeko gogua dakat, eta ezin dot!”

Zein da Peion egoeria zehazki?

Peiok, apirilaren 16xan 20 urte bete ditte kartzelan. Bizitzako urterik ederrenak kartzelan eman ditte, preso. Oin dala 2 urte, kalia egon biharko litzateke baina Parot doktrina dala eta, 30 urteko espetxe zigorra bete biharko dabela diñue. 2019ra arte kartzelan egon biharko dabela. Luzatu diote.

Ama moduan zela bizi dozu egoera hau?

Pena haundixa izaten dot batzuetan, nahiz eta gogor plantak egin. Umetxua besuetan hartzeko gogua daukat baina ezin! Akordatzen naiz, Peio giltzurruneko harriza zala eta ospitalian sartu zebenian Mallorkara bisitan jua ginala. Zaintzako gelan zeguan eta gu berakin egoteko baimenan zain. Erregistro danak eginda, sartzen laga zoskuen eta ni emozioño guztixakin laztan bat emotera jua nintzan. Baina han zeguan guardia zibilak ez zotan laga semiagana hurbiltzen. Handik 2 minutura baimena emon zotan. Berak nahi izan zebanian bakarrik emon ahal izan notsan musu semiari. Baina azkenian gogortu egin bihar izan

naiz, ez daukat besterik. Pentsamenduak burutik kendu eta segi aurrera!

Zelako harremana daukazu Peiokin?

Batez be telefonotik egitten dogu berba. Berak, astian 8 diar egiteko aukeria dauka, 5 minutukuak. Nik hamabostian behin berba egitten dot berakin. Azkenengoz, bere urtiak zirala eta, lehenagotik zorion txartel bat bialdu notsan eta bueltan etorri da. Zeozer falta ei jako. Guk, seilu berrixa ipini eta berriz bialduko dotsagu, zela ez!

Noiz egon zinan berarekin azkenengoz?

Oin dala 3 bat urte. Baina hain dao urrin! Bizkar hazurreko minak dauzkat eta ezin neike hain bideluzia egin. Gainera, **neguan egualdi txarrakin, hamabostero hainbeste kilometro egittia zaila da gero!** Ni juan ez arren, bestiak ikusten dittut juaten eta sufritu egitten dot. Aurtengo udan, gutxinaka-gutxinaka urreratuko naiz semia ikustera. 3 urtian semia ikusi barik, erre ez esaten da. Ez da nahi ez dotelako!

Zelakuak izaten dira kartzelara bisitak?

Bisa-bisian ordu ta erdixan berakin egoteko aukeria daukazu. Patxo bat emon edo besarkada bat emoteko. Bisita normalak 40 minutukuak izaten dia eta kristal bat izaten bittartian.

Zela dago Peio gaur egun?

Berak burua gogor dauka eta zaindu egitten da. Psikologiako ikasketak amaitzen dabil, ikasgai bat geratzen jako karrera amaitzeko. Ekainian aprobaten badau amaitu egingo dau. Artista bat da!

Gizartian babesa sentitzen dozu?

Bai igartzen dot jentian babesa. Etxetik esaterako, euskal presuak euskal herrira ekartzeko esaten daben banderola ikusten dot pareko etxietan. Holako gauzak indarra emoten dabe aurrera jarraitzeko. Laguntasuna badago, bai!

“Hiru urte semia ikusi gabe erraz esaten da! eta ez da nahi ez dotelako!”

“Psikologiako karrera atera dau, Peio artista bat da!”

“Laguntasuna badago, bai!”

Hemendik aurrera zer?

Errekurtsuak eginda daoiz baina momentuz asuntua geldidau, zer gertatuko dan zain. Abokatuak zain dare. ●

DATUAK:

Gartzelatik gartzelara

Carabanchel, Alcala, Herrera, Cuenca, Malaga, Ibiza eta Mallorcako gartzeletan izan da. Gaur egun Castelloko espetxean daukate.

Asteroko bidaiak

- Castello Soraluzetik 600 kilometro ingurura dago.
- 20 urteotan 1 248 000 kilometro inguru egin dituzte.
- Munduari 31 bueltatik gora emateari dagokion distantzia.
- Bidaiako 150 euro inguruko gastua egiten du pertsona bakoitzak.

Sinadura bilketa eta beste ekimen batzuk

Herrian Peioren egoeraren berri eman eta bere askatasuna eskatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azken asteotan. Prentsaurrekoa, solidarioen ekintza eta sinadura bilketa. Maiatzaren 16an, arratsaldeko 18:00etan, ekitaldi nagusia egingo da kiroldegiko frontoian. Bertan, 20 urteotako errebaso egingo dute bideo eta argazkien bitartez.



Apirilean solidarioek egoera salatzeke, autobusaren gainera igo eta pankarta zabaldu zuten 15 minutuz.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Herriaren erdialdea ixteko, Olatik Estaziora bitartean saihesbidea noranzko bakarrean jarri eta bertan 172 aparkaleku berri egiteko aukera proposatu du udalak.

Zela ikusten dozu goiko saihesbidian aparkalekuak egittia?


JABI VALENCIAGA
Peoia



JUAN MANUEL MERINO
Langabetua



MARI KARMEN KORTA
Etxekoandrea



MARIA ANTONIA TXURRUKA
Administratzailea




Herrikotxiak aterratzea eta saihesbidian aparkalekuak egittia, oso ondo pentsatzen jata! Herri honetan arazo handia dakagu aparkalekuak eta kalia oinezkuentzat izatia ideia ona dala pentsatzen jata!

Mundu guztixa ados badago, neri oso ondo pentsatzen jata saihesbidian aparkalekuak egittia. Oinezkuak kaletik lasaixago ibili ahal izango dira eta lasaittasun hori, oso aberasgarria dala uste dot.

Neri saihesbidian 172 aparkaleku egittia oso ondo pentsatzen jata, ahal dan lekuan egin bihar dira eta! Erregetxian egittia be ondo egongo litzake, aspaldi gabiz entzuten eta lur azpiko aparkalekuen asuntua!

Saihesbidian aparkalekuak egittia ondo pentsatzen jata, herrixak bihar dabelako. Zirkulazina baina ikusi biharko da zelan geratzen dan, danontzat egokixa dan edo ez. Erabakixa horren arbera hartu biharko litzake.

KOMIKIXA



Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azlorbebetia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Eskulan tailerra maiatzean



Irukurutzeta Eguna maiatzaren 3an

Santa Kruz eguna pasatu eta hurrengo domekan, urteroko ohiturari jarraituz Irukurutzeta Eguna ospatuko da. Goizeko 11:00etan Irukurutzetan bertan salda eta txorizo banaketa egingo da, trikitilariekin. Eguraldi txarra egiten badu, Atsedean Txaboletan ospatuko da jai.

Soraluzetarrak V. Debagoieneko Trikiti Egunean

Debagoieneko trikitilariak Antzuolan batuko dira apirilaren 25ean eta Soraluzeko Musika Eskolako ikasleak ere bertan izando dira. Goizeko 11:00etan hasi eta gauerdia bitartean, kalejira eta emanaldia eskeintzeaz gain, bazkaria eta erromeriez gozatzeko aukera izando dute, Trikitio taldearekin esaterako.

Jaiak prestatzeko bilera

Santa Ana jaiak antolatzeko Jai Batzordea datorren martitzenean, hilak 28, bilduko da arratsaldeko 19:00etan. Udalak bertara joateko gonbitea luzatu die herriko hainbat elkarte eta pertsonari. Udalaren asmoa da, ahalik eta herritarrik gehienek parte hartzea aurtengo jaiak prestatzen. Gainera, aurtun Jai Batzordea erabakitzailea izando da eta bertan hartuko dira jalen inguruko erabaki guztiak.



Udaleko Osasun eta Gizarte Ongizate Sailak maiatzerako eskulan tailerra antolatu du maiatzerako. Parte hartu nahi duten guztiek, apirilaren 27tik 29ra bitartean eman beha-

rko dute izena Ongizate Sailean (goizeko 11:00etatik 13:00etara). Ikastaroak bi orduko iraupena izango du eta astelehen, eguazten eta eguenetan egingo da. ●



DBHkoen bertso txapelketa

Aste Santuko oporrak hartu aurretik, DBHko ikasleek bertso lehiaketa egin zuten. Malla guztietan egon ziren saridunak eta parte hartzea ere altua izan zen.

Irabazleak:

Iñigo, Nerea N, Mialen, Egoitz eta Eneko, Ivan Ayora, Itxaso, Jokin Parra, Lara, Ane, Ainhoa M, Nerea, Elene, Iratxe, Sheila eta Miren.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**



ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM Desing
Discinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Laskurain txapelketatik kanpo

Agirrearen kontra 22 eta 7 galdu ostean, eskuz banakako txapelketatik kanpo geratu da Aritz. Txapelketako lehenengo eta azken partidua izan da Aritzendako. Txapelketatik kanpo jokatu dituen partiduetan ere ezin izan ditu emaitza hobekak lortu. Alde txikiagatik bada ere, 21 eta 22 galdu zuen Titin III.narekin

batera Mtz de Irujo eta Goñi III. na bikotearen kontra jokatu tako partidua eta 22 eta 19 Gonzalezekin batera Bengoetxea VI.na eta Mendizabal II.aren aurka jokatu takoa. Hurrengo partidua, domeka honetan jokatu du Eibarren Titin III.narekin batera, Xala eta Eulateren kontra. ●



**SORALUZKO
EMAKUMEEN
PALA TXAPELKETA**

Emakumeen pala txapelketa martxan

“*Stop tortura!*” lemapean, Soraluzeke 4. emakume pala txapelketa hasi da apirilean. 16 bikotek eman dute izena eta 4 taldetan banatu dituzte. Hiru kanporaketa jokatu dituzte eta azkenean, finala San Andresko frontoian jokatu dute uztailan.

Antolatzaileen esanetan inoiz baino parte hartze handiagoa izan da aurten. Herriko emakumez gain, bailarakoek batzuk ere parte hartuko dute. Bestalde, pala txapelketako kamisetak eskura jarri dituzte antolatzaileek, 10 eurotan Gaztelupe eta Arrano tabernetan. ●

EMAITZAK:

PELOTA

Eskuz Banakako Txapelketa

Agirre 22
Laskurain..... 7

Binakakoa:

Titin III - Laskurain 21
Mtz de Irujo - Goñi III 22

Bengoetxea VI - Mendizabal II .. 22
Gonzalez - Laskurain..... 19

FUTBOLA:

Sora(Erreg.N.)- Zumaiako..... 6-1
BergarakoK.E.B.- Sora(Erreg.M.) . 1-1
Sora(Jub)- Eibartarrak 2-1
BergaraB.K.E.- Sora(Kad) 2-4

AGENDA:

PELOTA:

Eibar, 09/04/26 17:00

Titin III - Laskurain

Xala - Eulate

FUTBOLA:

Domeka 26, 15:30etan Fandierian
Touring C.D.- Sora (Erreg.N.)

Zapatua 25, 17:00etan Ezozin

Sora (Erreg.M.)- Allerru

Zapatua 25, 11:00etan Ezozin

Sora (Kad.)- Ikasberri K.E.

Jubenilak atsedena

Mendi irteera arrakastatsua

100 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte Mendiola Gurutze Berri bitartean egin zuten lehenengo mendi irteeran. Hurrengo, domeka honetarako prestatu dute eta Aiatik hasi eta Pagoetara joango dira. Maiatzaren 10ean berriz, Adarrara irteera antolatu dute.



Iturria: Carlos De Cos



**MARI MAR
HARATEGIA**
*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak
Errekalde 21
20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

**MARE
ILEAPAINDEGIA**



**ESTETIKA
SOLARIUM**
Errabal kalea 1, behe
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

**GAZTELUPE
taberna**
tel: 943 75 20 81



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Roman Olaizola

GILA ZAHARRA

Argazki hau 1951. urteko abuztuan 23an etaratakoa da. Sasoi hartan Karmentxu zana zan Gila tabernako ugazaba. Gila izena gizonaren abizenagaittik ipinittako izena da.



M^a ASUNCION ARIZNABARRETA GABILONDO

SORALUZE, 2009-KO MARTXOAREN 13 -A

“Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu ahaztuko”

Senitartekoak eskerrak eman nahi dizkizuegu dolu adierazpenengatik”



Lolari

Gaur, txantxangorri bat pausatu da lehioan. Ume guztiak berarengana hurbiltzen joan direnean, txoriak ipuin bat kontatzera zetorrela esan die.

Astiro mintzatu da txoria. Hain zen haundia ixiltasuna, ze gainontzeko txorien kanten musika bihurtzen zuten txantxangorriaren mintzoa.

Txantxangorriak, zu, Lola, hegan ikusi zaituela esan die umeei, eta hauek hori entzutean izugarri poztu dira; ez dakizu zenbaterainokoa zen umeek ixurtzen zuten poztasuna.

Eta umeek bakarrik erakutsi ohi duten ausardiaz, txoriari eskaera hau luzatzeko gai ere izan dira: “Gorde ezazue beti zuen artean, hainbeste maite izan dugun laguna”.

Txantxangorriak kantuari ekin dio kurloj, gardantxillo... eta beste txori askorekin batera hegaldi lasaian aireratu da; gero eta gorago, gero eta gorago..., arrastoan mezu hau utzita: “Lasai egon zaitetzte; hor goian, txori artean, Lola betirako zainduko dugu eta”.

BITTOR.

LA SALLE AZITAIN ikastetxea

2009-2010 ikasturterako eskaintza

**BATXILERGOAK (A eta D)
ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA
GIZARTE ZIENTZIAK**

***Badugu
ikasteko
leku bat
zurretzat***

**943 121 698
maiatzaren
4tik 8ra**



DBH amaitu ondoren

Heziketa Zikloak Erdi-Maila

2 urtez

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

Titulua: Teknikaria

Batxilergoa ikasi ondoren

Heziketa Zikloak Goi-Maila

2 urtez + 3 urtez = eman 5ekoa!

- Proiektu mekanikoen garapena
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Industri ekipoen mantenimendua

Titulua: Goi-mailako teknikaria
 Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza
 Irakaskuntza Eleanitza

Goi-Mailako Zikloen ondoren

IMH Ingeniaritza Eskola

- 3 urteko lan esperientzia
- Ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boloniako Itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala

Titulua: Ingeniaria
 Ikasi eta lan txandakako metodologia
 Irakaskuntza eleanitza

ATE IREKIAK (zikloak eta ingeniari-tza):

Apirilaren 25ean, larunbatean – goizeko 11:00etan



IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es



**UNIBERTSITATEA
 BIZITZEKO
 PREST!**

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

APIRILAK 25 - 11:00 larunbata AULA MAGNA

MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna AULA MAGNA

ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata AULA MAGNA

ESKORIATZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu